Defendemos EUSKADI Zaindu

2026KO HAUTESKUNDE OROKORRAK
ELECCIONES GENERALES 2026

Maribel Vaqueroren hitzaldia
Bilbo. 2026.11.27

Arratsalde on, Arratsaldeon, Bilbao. Arratsalde on Euskadi. Kanpaña amaierako mitiña, miñez, inpotentziaz hasten dugu. Nire lehen hitzak atzo hemen, Bilbon gertatutakoa gaitzesteko erabili nahi ditut. Biansi, 34 urteetako emakumea erahil egin zuen bere bikotekide ohiak, 4 eta 6 urteko seme-alaben aurrean. Biolentzia matxistaren aurkako egunaren biharamunean. Lehenik eta behin, nire dolumina, elkartasuna familia eta lagunei, eta gaitzespen irmoena.

Politikatik, instituzioetatik, gizarte mugimenduetatik eta norberak ere, asko egin dezakegu indarkeri estruktural honi aurre egiteko. Horregatik, gaur, gure arduratik, kasu honetan Kongresutik Euskal Taldeak emakumeen kontrako indarkeria matxistari aurre egingo diola, egindo dugula eta egindo dudala hitza ematen dizuet. Emakume bat erasotzen dutenean gainontzeko emakume guztiak erasotzen gaituztelako, gizarte oso bat erasotzen dutelako.

Politikatik asko egin daiteke. Asko. Eta ez dugu amore emango oraindik ere gehiago egiteko. Behar dena egiteko. Emakumeak Euskal Etxearen parte gara, Euskadi gure etxea da, eta Euskadi libre bat aldarrikatzen dugun bezala, emakume eta gizonez librez osatutako Euskadi bat aldarrikatzen dugu. Emakume libreak, gure bizitza nahi dugun bezala aske bizitzeko! Indarkeria matxistari aurre egin behar diogu. Bai ala bai. Horregatik, emakumeen kontrako biolentzia ezeztatzen dutenei aurre egingo diegu, matxismoari aurre egingo diogu. Ez bait dute inolako kabidarik gure Herrian, ez Euskadin, ez inon!

Me produce verdadera tristeza e impotencia el asesinato de Biansi a manos de su expareja, delante de su hija y de su hijo, ayer, aquí en Bibao. Con Biansi, son 50 las mujeres asesinadas en el Estado en lo que va de año. Hace 2 días reflexionábamos y nos comprometíamos con la igualdad, con la defensa de los derechos de la mujer. Hoy aquí quiero dejar claro, que el Partido Nacionalista Vasco no va a negociar nunca los derechos de las mujeres, porque no son negociables, son Derechos Humanos. Ningún recorte, ninguna involución en los derechos que tanto ha costado conquistar a las mujeres. Es el compromiso feminista del PNV. Se lo debemos a cualquier mujer que en estos momentos esté sufriendo violencia machista. Se lo debemos a quien antes que nosotras han luchado por nuestros derechos.

Se lo debemos a nuestras abuelas, a nuestras madres, a nuestras hijas. Pero sobre todo nos lo debemos a nosotras mismas. Por ello, quería utilizar mi intervención en este cierre de campaña para dejar clara nuestra condena, pero sobre todo nuestro compromiso como candidatos y candidatas, como partido, en la defensa de los derechos de la mujer, en la erradicación de la violencia machista a través de nuestro apoyo a todas las políticas públicas de igualdad, políticas públicas feministas. Porque la desigualad entre hombres y mujeres y la violencia machista es uno de los mayores retos a los que nos enfrentamos en nuestras democracias. Podemos hacer más. Y lo haremos.

Cuidar la Casa Vasca es cuidar a los que viven en ella. Y una Casa no está cuidada si dentro hay una mujer que tiene miedo, que sufre violencia machista de cualquier tipo. Defender la Casa Vasca es defender los derechos de las personas que viven en ella, también los derechos de las mujeres. Quiero terminar esta intervención dirigiéndome a todas y todos:

A las mujeres: la lucha por la igualdad y por hacer desaparecer la violencia machista no es una lucha que tengamos que hacer solas. Es un compromiso de Pais, es cuidar la Casa Vasca. Es defender Euskadi.

Eta gizonei: berdintasunaren aldeko borroka eta indarkeria matxista desagertzeko borroka ez da bakarrik emakumeon borroka. Gure herriaren borroka da, Euskal Etxea zaintzea da, Euskadi defendatzea da.

Indarkeria matxistaren aurrean ez dago neutraltasun egoera posiblerik; ez begiratzeak, ez errakzionatzeak edo isilik geratzeak baditu ondorioak ere. Bihotzez eskatzen dizuet Euskal Etxearen zaintza eta defentsa hau egin dezagun. Ezinbestekoa baita Euskadi libre bat eraikitzeko. Hau ere da politika egitea. Hau ere bozkatzen da igande honetan.

Eta amaitzeko azken bi hitz: Mila mila esker hateskunde kanpaina honetan erakutsi didazuen babesa, gertutasuna eta laguntzagatik. Benetan mundialak zerate. Mundialak! Ondo dakizuen bezala, ni urnietarra naiz. Lurdes Iriondo eta Xabier Lete gogoan, zuontzako. Denontzako opari bat.

Defendemos EUSKADI Zaindu

EAJ PNV

2026KO HAUTESKUNDE OROKORRAK
ELECCIONES GENERALES 2026

Kantatutzera noa bertso bat edo bi

Egunero jarriak Euskadi osoari

Aitor, Idoia, Gorka eta Lehendakari

Gauza ederra denik ez ukatu neri

Gauza ederra denik ez ukatu neri

Goizean jeikitzean lenbiziko gauza

Mitina prestatuta kaletik gabiltza

Blokeen artean ez dago zalantza

Alderdi Jeltzalea da aukera bakarra

Alderdi Jeltzalea da aukera bakarra

Gaurko eguna ere bota dugu, bada,

Andre okupatua gauza ederra da

Bikaina izanda egindako kanpaina

Irabaziko dugu Euskadiko leia

Irabaziko dugu Euskadiko leia

Ez naiz ni andre txarra, baina, zer arraio

Amore emateko ez bainintzen jaio,

Euskadiren alde egiten dut saio,

Zuei denoi eskerrak ta inoiz ez aio,

Euskadi askatzeko gu bai ginen jaio

Euskadi askatzeko gu bai ginen jaio.

Gora Euskadi Askatuta!